NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia | Iruña, 2024ko azaroaren 27a | 139. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:
Foru-lege proiektuak:
—10-24/LEY-00012. Foru-lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko. Osoko zuzenketak (4. or.).

E SAILA:
Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:
—11-24/DEC-00050. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortza adierazten baitie eta eskerrak ematen baitizkie gure komunitatean boluntariotzan diharduten pertsona, entitate, kolektibo eta erakunde guztiei. Eledunen Batzarrak onetsi du (6. or.).
—11-24/DEC-00051. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hiesaren Aurkako Mundu Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (7. or.).

F SAILA:
Galderak:
—11-24/POR-00377. Galdera, SODENArekin adostuta izendatutako Sunsundeguiko kontseilukideei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (8. or.).
—11-24/POR-00378. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzeko atzerapenari buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (9. or.).
—11-24/POR-00379. Galdera, tentsiopeko merkatuaren zonalde deklaratutako udalerriei buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (9. or.).
—11-24/POR-00380. Galdera, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen helburuen betetze-mailaren balantzeari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (10. or.).
—11-24/POR-00381. Galdera, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren erreforma onesteari buruzkoa. Ramón Alzorriz Goñi jaunak egin du (11. or.).

—11-24/POR-00382. Galdera, emakumeen aurkako indarkeria kasuen arreta eta prebentzioa koordinatzeko erakundeen arteko akordioa berritzeari buruzkoa. Irati Jiménez Aragón andreak egin du (11. or.).
—11-24/POR-00383. Galdera, Oronozen eraikiko den LHko eskualdeko ikastetxe berriaren proiektuari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (12. or.).
—11-24/PES-00479. Galdera, beka orokorretarako aplikazio informatiko berriarekin egin diren jarduketei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (12. or.).
—11-24/PES-00480. Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak azaroaren 14an egin zen politika orokorrari buruzko eztabaidan esandakoari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (13. or.).
—11-24/PES-00481. Galdera, adingabe batek adingabeentzako behaketa eta harrera zentro batean jasotako arretari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (14. or.).
—11-24/PES-00482. Galdera, Zientziaren Asteei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (14. or.).
—11-24/PES-00483. Galdera, familia-harrerako egoeran egotea eskolatzeko lehentasunezko irizpidea izatea jasotzen duen araudiari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (15. or.).
—11-24/PES-00484. Galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarrak talde bideratzaile bat kontratatzeko prozesuari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (15. or.).
—11-24/PES-00485. Galdera, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena taxutzeko eta negoziatzeko prozesuan parte hartzeari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (16. or.).
—11-24/PES-00486. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena negoziatzeko eta taxutzeko prozesuan Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko arduradun politikoren batek parte hartu ote zuen jakiteko. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (17. or.).
—11-24/PES-00487. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena taxutzeko eta negoziatzeko prozesuan Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko teknikariren batek parte hartu ote zuen jakiteko. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (18. or.).
—11-24/PES-00488. Galdera, Ingurumen Departamentuak 2024ko aurrekontuak betetzeari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (19. or.).
—11-24/PES-00489. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesuan Nafarroako Memoriaren Institutuko arduradun politikoren batek parte hartu ote zuen jakiteko. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (20. or.).
—11-24/PES-00490. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesuan Nafarroako Memoriaren Institutuko teknikariren bateik parte hartu ote zuen jakiteko. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (21. or.).
—11-24/PES-00491. Galdera, Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesua dela-eta Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (22. or.).
—11-24/PES-00492. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesua dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (23. or.).
—11-24/PES-00493. Galdera, Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua eraistea eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialistekin bilerarik izan ote duen jakiteko. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (24. or.).
—11-24/PES-00494. Galdera, Nafarroako Memoriaren Institutuaren arduradunak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua botatzea eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialistekin bilerarik izan ote duen jakiteko. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (25. or.).
—11-24/PES-00495. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (26. or.).
—11-24/PES-00496. Galdera, 1936ko kolpe militarraren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeari dagokionez Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (27. or.).

—11-24/PES-00497. Galdera, 1936ko kolpe militarraren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeari dagokionez Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (28. or.).

—11-24/PES-00498. Galdera, "Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioa dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (29. or.).

—11-24/PES-00499. Galdera, "Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioa dela-eta Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (30. or.).

—11-24/PES-00500. Galdera, etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa egiteko eta kudeatzeko lankidetza-hitzarmenak eta lantaldeak eratzea egokia ote den ikuste aldera Nafarroako Memoriaren Institutuarekin aurretiaz harremanik izan ote den jakiteko. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (31. or.).

—11-24/PES-00501. Galdera, etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa egiteko eta kudeatzeko lankidetza-hitzarmenak eta lantaldeak eratzea egokia ote den ikuste aldera Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiarekin aurretiaz harremanik izan ote den jakiteko. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (32. or.).

—11-24/PES-00502. Galdera, arnasgailuak erosteko lizitazioaren zehaztapenei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (33. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/PTCI-00012. Mahaiaren erabakia, Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluari eta Valentziako Erkidegoko Nafarroako Etxeari Nafarroako Parlamentuaren Domina emateko (34. or.).

—11-24/ACCOP-00003. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunari buruzkoa (35. or.).

—Nafarroako Parlamentuko lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea (35. or.).

—11-24/QSR-00002. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak –horietako bi, euskarako B2 hizkuntza-eskakizunarekin–, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko oposizioaldiko probaren aurkakoa (36. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

10-24/LEY-00012. Foru-lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko

OSOKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru-lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak. Foru-lege proiektu hori 2024ko azaroaren 12ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru-lege proiektuari aurkeztua.

Nafarroako Gobernuak 2025erako onetsi duen tributu-neurriei buruzko foru-lege proiektuak ez ditu aintzat hartzen eta ez ditu jasotzen Nafarroako gizarteak zergen arloan egiten dituen eskaerarik garrantzitsuenak.

Elkarte edo kolektibo asko eta asko izan dira Nafarroako Gobernuari azken urteotan eskatu diotenak bere zerga-politika berrazter dezan, zeren izugarri garestia baitzen pertsonentzat, enpresentzat nahiz autonomoentzat.

Eskaera horiek aintzat hartu beharrean, tributu-neurriei buruzko foru-lege proiektu honek finkatzen duen zerga-politikak ez du laguntzen ez jarduera ekonomikoa ez enplegua sortzen eta, gainera, PFEZean, ondarearen gaineko zergan edo sozietateen gaineko zergan gehien ordaintzen duten espainiarrak izatera kondenatzen ditu herritarrak.

Hortaz, ez dugu ikusten zerga-politikan bolante-kolpe bat ekarriko lukeen zerga-arintze nabarmenik, zerga-politika bidezkoagoa izan dadin edo, gutxienez ere, ez gaitzan okerrerako diskrimina beste autonomia-erkidego batzuetan ordaintzen dituzten zergen aldean.

Zerga-eredu hori finkatzeak ez du gure lehiakortasun fiskala hobetuko, hori izan beharko litzatekeen arren beste helburuetako bat; izan ere, beste lurralde batzuekin lehian ari gara, eta zerga-politika baitezpadako tresna da zeregin horretan arrakasta izateko aukeraren bat edukitzeko.

Zerga-eredu hori finkatzea errenta baxu eta ertainentzako zigorra mantentzea da, eta Nafarroako gizarteak ez du halakorik merezi.

Gainera, dagoeneko argi dago PSNk zergatik onartzen duen orain zerga-eredu hori –oposizioan zegoenean aurkako botoa eman zuen–: ez Nafarroarentzat onena dela uste duelako, baizik eta Foru Gobernuaren lehendakaritza ziurtatzeko, EH Bilduren exijentzien eta zerga-politikaren parte bat onartuta.

UPNren ustez, ez da zerga-politika onargarria nafarrak gainontzeko espainiarren aldean egoera fiskal okerragoan mantentzea dakarrena, eta jakin dakigun arren proiektu honetan sekula kendu behar ez ziren hobekuntza txiki batzuk jasotzen direla eta etxebizitzaren edo enpresa-berrinbertsioaren arloko pizgarriak berrezartzen direla, uste dugu ez direla aski, ezta hurrik eman ere.

Hitz batean, nafarrak dira, gazteak, familiak, enpresak eta autonomoak, etorkizunari begira argi eta garbi zigortzen gaituen besteekiko desabantaila fiskala gainditzeko aukera galtzen dutenak.

Horregatik guztiagatik, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak osoko zuzenketa hau aurkezten dio 2025eko ekitaldirako Nafarroako tributu-neurriei buruzko foru-lege proiektuari.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru-lege proiektuari aurkeztua

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartze aldera Gobernuak aurkeztu duen lege-proiektuak ez die erantzuten ez Gobernuak zerga-politika berrikusteko duen konpromisoari, ez familien errenta hobetu dadin, Nafarroak lehiakorra izaten jarraitu ahal izan dezan eta ahal den neurrian gure enplegua eta hazkuntza hobetu daitezen Nafarroak zerga-politika aldatzeko duen premiari ere.

Zerga-politika aldatzeko premia hori aipatu dute zenbait azterlanek eta kolektibok. Halatan, Fundación para el Avance de la Libertad-ek eta Tax Foundation-ek egindako azken azterlanaren arabera, non hirurogei aldagai baino gehiago erabiltzen diren erkidegoetako fiskalitatea konparatzeko, Nafarroak 19tik 14. tokia hartzen du, azkena da hala errentan nola ondarean eta azken tokia hartzen du sozietateen gaineko zergaren kasuan ere. Nahiz eta zerga hori ez den zerrenda horretan ageri, Euskadik eta Nafarroak soilik daukatelako sozietateen gainean arauak emateko ahalmena, gogora ekarri behar da, dena den, hemen % 28ko zerga-tasa aplikatzen zaiela enpresa handiei; aldiz, Frantzian eta Espainiako gainontzeko erkidegoetan % 25ekoa aplikatzen da eta Euskadin, berriz, % 24koa.

CO.CIUDADANAk aurkeztutako Joeren Nafarroako Panelak ere beste horrenbeste erakusten du: gure ahulezietako bat da fiskalitate handia eta inbertsiorako erakarmen txikia daukagula, eta horiek giltzarri dira gure etorkizunari begira.

Ekonomisten Elkargoaren 2023ko Erregiolehiakortasuna Espainian txostenaren arabera ere, rankingeko lehenbiziko postuetan dauden Madrileko autonomia-erkidegoa, Euskadi eta Nafarroako Foru Komunitatea. "Lehia-triangelua" mantentzen bada ere, Euskadik aurrea hartu dio Nafarroako Foru Komunitateari, Nafarroak indarra galdu baitu, eta indarra galdu izanaren arrazoietako bat da bere esfortzu fiskala.

Halatan, Nafarroan, 2024an, hazkunde ekonomikoa % 2,5ekoa izanen dela aurreikusten da –hori Barne Produktu Gordinaren bidez neurtzen da–; Espainian, aldiz, hazkundea % 2,9koa izatea aurreikusten da. Datu horiek ikusita, hausnarketa egin beharko genuke, ea adierazle horri begira funtsezkoa den tresna horrek –fiskalitateak, alegia– berekin zer dakarren.

Lege proiektu honetan jasotzen diren neurriak ez dira aski familien nahiz autonomoen errenten zama fiskala arintzeko eta ekonomia oro har hobetzeko. Ez direnez enplegurako ez inbertsiorako mesedegarri, beste aukera bat galduko da hazkundea eta oparotasuna sortzeko, eta ezin dugu halakorik onartu.

3. ZUZENKETA

VOX NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru-lege proiektuari aurkeztua.

Nafarroako Gobernuak 2025erako onetsi duen tributu-neurriei buruzko foru-lege proiektuak ez ditu betetzen bere helburu nagusiak: hazkunde ekonomikoa sustatzea eta zerga-sistema sinplifikatzea. Aitzitik, betikotu eta larriagotu egiten ditu Nafarroako ekonomiaren egiturazko arazoak.

2024an, hazkunde ekonomikoa % 2,5ekoa izanen dela aurreikusten da –hori Barne Produktu Gordinaren bidez neurtzen da–; Espainian, aldiz, hazkundea % 2,9koa izatea aurreikusten da. Datu hori oso kezkagarria izan beharko litzateke gobernu honentzat.

Hainbat azterlanek eta kolektibok adierazi dute beharrezkoa dela zerga-politikak aldatzea. Testuinguru honetan, Fundación para el Avance de la Libertad eta Tax Fundation fundazioek berriki egindako txostena azpimarratu behar da, non fiskalitatea beste erkidego batzuekin alderatuta aztertzen baita, hirurogei aldagai baino gehiago baliatuta. Azterlan horretan, Nafarroak 19tik 14. tokia hartzen du, azkena da hala errentarekin nola ondarearekin lotutako adierazleei dagokienez. Sozietateen gaineko zergarn kasuan era azkena izanen litzatekeela uste da, nahiz eta zerga hori ez dagoen adierazleen artean jasota, Nafarroak zerga hori arautzeko ahalmena baitauka. Nafarroak % 28ko zerga-tasa ezartzen die enpresa handiei zerga horren kasuan; Espainiako gainontzeko lurraldeetan, aldiz, tasa orokorra % 25ekoa da.

Presio fiskala arindu beharrean, proiektu honek herritarren nahiz enpresen gaineko zerga-tasak handitzeko neurriak jasotzen ditu, eta eragin berezia dauka ekintzaileen, autonomoen nahiz enpresa txiki eta ertainen kasuan. Sektore horiek, zeinak enplegua sortzeko eta ekonomia garatzeko oinarrizko zutabeak baitira, zigortu egiten dira, eta horrek murriztu egiten du Nafarroaren lehiakortasuna beste autonomia-erkidego batzuen eta Europako beste erregio batzuen aldean.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa garapen ekonomikoari dagokionez erreferentziazko erkidegoa berriz izan dadin, Nafarroako Parlamentuko Vox elkarteak osoko zuzenketa hau aurkezten dio Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru-lege proiektuari, proiektua gobernu erregionalari itzul dakion, harena izan baita ekimena.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/DEC-00050. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortza adierazten baitie eta eskerrak ematen baitizkie gure komunitatean boluntariotzan diharduten pertsona, entitate, kolektibo eta erakunde guztiei

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak aitortza adierazten die eta eskerrak ematen dizkie gure komunitatean boluntariotzan diharduten pertsona, entitate, kolektibo eta erakunde guztiei.

2. Orobat, Nafarroako Parlamentuak, ekitaldi honen bidez, aitortza adierazi nahi die beren lanarekin tanta hotzak Valentziako Erkidegoan berriki eragin duen egoera hobetzen ahalegindu diren pertsona, entitate eta erakunde guztiei.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du boluntariotzak garrantzi handia duela gure komunitatean.

4. Nafarroako Parlamentuak nabarmentzen du boluntarioek urte osoan zehar askotariko jardueretan egiten duten lana, gizarte hobe bat lortzen laguntzeko egiten dutena.

5. Nafarroako Parlamentuak beharrezko deritzo boluntariotza sustatzen duten politika publikoak egiten jarraitzeari.

6. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du gure komunitatean boluntariotza balioan jartzera bideratutako jarduerak egiteko.

7. Nafarroako Parlamentuak bere saririk gorena den Nafarroako Parlamentuaren Domina emanen die Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluaren ordezkari bati eta Valentziako Erkidegoko Erregio Etxearen Nafarroako egoitzaren ordezkariari, Nafarroako kolektibo, entitate eta pertsona guztien solidaritatearen eta erakundeekin gauzatzen duten lankidetzaren ikur gisa".

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/DEC-00051. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hiesaren Aurkako Mundu Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Hiesaren Aurkako Mundu Egunaren ospakizunarekin; hori dela-eta, Hiesaren aurkako Nafarroako Batzorde Hiritarrarekin eta Sare Elkartearekin batera, ekitaldi bat antolatu du Legebiltzarraren atalondoan. Ostegunean, azaroaren 28an, izanen da, 9:00etan.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, 42 urteko epidemiaren ondotik, beharrezkoa da prebentzio konbinatuan lan egiten jarraitzea. Diagnostiko goiztiarra eta tratamenduari goiz ekitea dira biderik onenak pertsonen osasuna babesteko eta kutsatzeak prebenitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak GIBarekin loturiko Diskriminaziorik Ezaren eta Tratu Berdintasunaren aldeko Gizarte Itunak biltzen dituen neurriak bultzatzen jarraitzearen alde egiten du.

4. Nafarroako Parlamentuaren konpromisoa da arreta soziosanitario banakatua bermatzea GIBdun diren pertsonei, kontuan hartuz haien berezitasunak.

5. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du GIBarekin bizi diren pertsonekiko diskriminazioa desagerrarazteko neurriak bultzatzen jarraitzeko.

6. Nafarroako Parlamentuak erabaki du bere fatxada abenduaren 1ean gorriz argiztatzea".

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00377. Galdera, SODENArekin adostuta izendatutako Sunsundeguiko kontseilukideei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, SODENArekin adostuta izendatutako Sunsundeguiko kontseilukideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak azaroaren 28ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ezagutzen zenuen ala ez zenuen ezagutzen SODENArekin adostu behar ziren Sunsundeguiko kontseilarien izendapena?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/POR-00378. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzeko atzerapenari buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzeko atzerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak azaroaren 28ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak urgentziazkoa zela adierazi zuen arren, ez da aldatu 16/2022 Foru Legea (tokientitateetako idazkaritza eta kontu-hartzailetza), hautapen-prozesuak banantzeko. Zergatik?

Iruñean, 2024ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

11-24/POR-00379. Galdera, tentsiopeko merkatuaren zonalde deklaratutako udalerriei buruzkoa

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, tentsiopeko merkatuaren zonalde deklaratutako udalerriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdobak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak 2024ko azaroaren 28ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Departamentuak orain dela zenbait aste iragarri zuen zer 21 udalek betetzen zituzten tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde izendatuak izateko betekizunak.

Izendapen horrek udalei aukera ematen die plan bat taxutzeko, non udal bakoitzak, bere erre-

alitatea zein den, neurriak ezarri ahalko dituen etxebizitza departamentuaren eskutik.

Hilaren 27an (asteazkena) lehenbiziko bilera baterako deia egin zaie ukitutako udal guztiei; bileran, besteak beste, plan horiek taxutzeko oinarriak zehaztuko dira. Planek arrakasta izan dezaten, beharrezkoa da toki-entitateek eta departamentuak lankidetzan aritzea.

Departamentuak nola ikusten du hartzen ari direla udalak beren herrietan har litekeen neurrisorta hori?

Iruñean, 2024ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-24/POR-00380. Galdera, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen helburuen betetze-mailaren balantzeari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen helburuen betetze-mailaren balantzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko eledun Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak heldu den ostegunean –azaroaren 28an– Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azaroaren 25eko astean gaude –Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna–; gainera, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak hamar urte beteko ditu hilabete gutxi batzuk barru.

Hori dela-eta, zer balantze egiten duzu, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria zaren aldetik, lege horretan ezartzen diren helburuen betetze-mailaz?

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-24/POR-00381. Galdera, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren erreforma onesteari buruzkoa

RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren erreforma onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariordeari zuzendua, 2024ko azaroaren 28ko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dadin:

Nola baloratzen duzu Foruaren Hobekuntzaren aldaketa onetsi izana eta zer urrats eginen dira hemendik aitzina?

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/POR-00382. Galdera, emakumeen aurkako indarkeria kasuen arreta eta prebentzioa koordinatzeko erakundeen arteko akordioa berritzeari buruzkoa

IRATI JIMÉNEZ ARAGÓN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irati Jiménez Aragón andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, emakumeen aurkako indarkeria kasuen arreta eta prebentzioa koordinatzeko erakundeen arteko akordioa berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Irati Jiménez Aragón andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2024ko azaroaren 8an iragarri zen emakumeen kontrako indarkeriaren arreta eta prebentzioa koordinatzen duen erakundeen arteko akordioa berritzeko eta hobetzeko asmoa dagoela. Hori dela-eta, noizko aurreikusten da hori berritzea, zer organismok eta eragile sozialek parte hartuko dute berritze eta hobetze horretan eta zer alderditan eraginen du akordio berri horrek?

Iruñean, 2024ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Irati Jiménez Aragón

11-24/POR-00383. Galdera, Oronozen eraikiko den LHko eskualdeko ikastetxe berriaren proiektuari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Oronozen eraikiko den LHko eskualdeko ikastetxe berriaren proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Pedro González Felipe jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak iragarri baitu berriz hasiko dela Oronozen eraikiko den LHko eskualdeko ikastetxe berria definitzeko prozesua, zertan geratzen da proiektu hori?

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-24/PES-00479. Galdera, beka orokorretarako aplikazio informatiko berriarekin egin diren jarduketei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, beka orokorretarako aplikazio informatiko berriarekin egin diren jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Azken urteotan zer egin da beka orokorretarako aplikazio informatikoa berri bati dagokionez eta zer kostu izan du egindakoak?

Iruñean, 2024ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00480. Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak azaroaren 14an egin zen politika orokorrari buruzko eztabaidan esandakoari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak azaroaren 14an egin zen politika orokorrari buruzko eztabaidan esandakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Azaroaren 14an egin zen politika orokorrari buruzko eztabaidan, Chivite lehendakariak honako hau aipatu zuen hitzez hitz: "Gizarte Zerbitzuen Zuzendarien Estatuko Elkartearen arabera, Nafarroa da gizarte-politiketan gehien inbertitzen duen erkidegoa, pertsonako 4.161 euro inbertitzen baititu, eta Madrilek, adibidez, 2.000 euro".

Zehazten al duzu nondik atera dituzun agerraldi publiko eta ofizial batean baliatutako datu zehatz horiek?

Datu horiek bermatzen dituen iturriaren estekarik edo dokumenturik ba al duzu?

Iruñean, 2024ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/PES-00481. Galdera, adingabe batek adingabeentzako behaketa eta harrera zentro batean jasotako arretari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, adingabe batek adingabeentzako behaketa eta harrera zentro batean jasotako arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 14. artikuluan xedatuaren babesean, honako galdera idatzi hau aurkezten du:

Arartekoak zergatik jarri du auzitan oraintsu adingabe batek behaketa- eta harrera-zentro batean jaso duen arreta?

– Zer behaketa- eta harrera-zentrori buruz ari da Arartekoa?

– Nork kudeatzen du behaketa- eta harrera-zentro hori?

– Zer edukiera du eta zein da une honetan duen okupazio erreala?

Iruñean, 2024ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/PES-00482. Galdera, Zientziaren Asteei buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Zientziaren Asteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Zientziaren Asteei buruzko honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Nafarroako Gobernuak aurten zergatik ez du lagundu, bere enpresa publikoen bidez (Iruñeko Planetarioa –NICDOri atxikia–, NASERTIC, NILSA...) Zientziaren Asteak egiten?

2. Erabakia jakinarazteko komunikazio idatzirik egon al da? Baiezkoa bada erantzuna, idazki horien kopia bat eskatzen dugu.

3. Erabaki hori 2025erako mantenduko al da?

Iruñean, 2024ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00483. Galdera, familia-harrerako egoeran egotea eskolatzeko lehentasunezko irizpidea izatea jasotzen duen araudiari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, familia-harrerako egoeran egotea eskolatzeko lehentasunezko irizpidea izatea jasotzen duen araudiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 11-24/PES-00382 galderari buruzko galdera hau egiten du:

Zer arauditan jasotzen da familia-harrerako egoeran egotea eskolatzeko lehentasunezko irizpidea dela?

Iruñean, 2024ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/PES-00484. Galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarrak talde bideratzaile bat kontratatzeko prozesuari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarrak talde bideratzaile bat kontratatzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Klima-aldaketaren Bulegoak bi enpresa soilik gonbidatu zituen parte-hartzaileak hautatzeko eztabaida-prozesuetan espezializatutako talde bideratzaile pribatua kontratatzeko eta saioak taxutzeko eta dinamizatzeko –laguntza tekniko eta logistikoa barne–. Zer irizpide baliatu ziren horretarako , zergatik baliatu zen publizitaterik gabeko prozedura negoziatua eta eskaintzarako zer baldintza eskatu zitzaien?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-24/PES-00485. Galdera, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena taxutzeko eta negoziatzeko prozesuan parte hartzeari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena taxutzeko eta negoziatzeko prozesuan parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

"Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emate aldera PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk adostutako proposamena ikusita,

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak inolako parte-hartzerik izan al du “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk adostutako proposamena negoziatzeko eta taxutzeko prozesuan?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00486. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena negoziatzeko eta taxutzeko prozesuan Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko arduradun politikoren batek parte hartu ote zuen jakiteko

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena negoziatzeko eta taxutzeko prozesuan Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko arduradun politikoren batek parte hartu ote zuen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

"Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emate aldera PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk adostutako proposamena ikusita,

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko arduradun politikoren batek inolako parte-hartzerik izan al du “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk adostutako proposamena negoziatzeko eta taxutzeko prozesuan?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00487. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena taxutzeko eta negoziatzeko prozesuan Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko teknikariren batek parte hartu ote zuen jakiteko

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena taxutzeko eta negoziatzeko prozesuan Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko teknikariren batek parte hartu ote zuen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

"Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emate aldera PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk adostutako proposamena ikusita,

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko teknikariren batek inolako parte-hartzerik izan al du “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk adostutako proposamena negoziatzeko eta taxutzeko prozesuan?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00488. Galdera, Ingurumen Departamentuak 2024ko aurrekontuak betetzeari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Ingurumen Departamentuak 2024ko aurrekontuak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ingurumen Departamentuaren 2024ko aurrekontuen betetze-mailari buruzko gaurko datuak, honako atal hauen arabera xehakaturik: ekonomia zirkularra eta berrikuntza, baso- eta ehiza-baliabideak, biodibertsitatea eta arrantza-kudeaketa, Nafarroako Klima-aldaketaren Bulegoa eta Basozaintza. Betetze-mailari buruzko datuak honela xehakatuta ematea eskatzen dut: partida bakoitzaren hasierako aurrekontuaren eta aurrekontu bateratuaren arabera, SEMekin eta SEM gabe, I. kapituluarekin eta kapitulurik gabe.

Iruñean, 2024ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-24/PES-00489. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesuan Nafarroako Memoriaren Institutuko arduradun politikoren batek parte hartu ote zuen jakiteko

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesuan Nafarroako Memoriaren Institutuko arduradun politikoren batek parte hartu ote zuen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

"Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emate aldera PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk adostutako proposamena ikusita, Nafarroako Memoriaren Institutuko arduradun politikoren batek inolako partehartzerik izan al du “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk adostutako proposamena negoziatzeko eta taxutzeko prozesuan?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00490. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesuan Nafarroako Memoriaren Institutuko teknikariren bateik parte hartu ote zuen jakiteko

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesuan Nafarroako Memoriaren Institutuko teknikariren bateik parte hartu ote zuen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

"Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emate aldera PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk adostutako proposamena ikusita,

Nafarroako Memoriaren Institutuko teknikariren batek inolako parte-hartzerik izan al du “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk adostutako proposamena negoziatzeko eta taxutzeko prozesuan?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00491. Galdera, Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesua dela-eta Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesua dela-eta Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Kontuan hartuta Nafarroako elkarte eta talde memorialistek “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua eraistea aho batez eskatu dutela:

Nafarroako Memoriaren Institutuak zer balorazio egiten du “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena taxutzeko eta negoziatzeko prozesua dela-eta? Izan ere, PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk adostu duten proposamen hori Nafarroako elkarte eta talde memorialistek aho batez egindako eskariaren zeharo kontrakoa da.

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00492. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesua dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamenaren lan baldintzak negoziatzeko prozesua dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Kontuan hartuta Nafarroako elkarte eta talde memorialistek “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua eraistea aho batez eskatu dutela:

Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak zer balorazio egiten du “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena taxutzeko eta negoziatzeko prozesua dela-eta? Izan ere, PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk adostu duten proposamen hori Nafarroako elkarte eta talde memorialistek aho batez egindako eskariaren zeharo kontrakoa da.

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00493. Galdera, Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua eraistea eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialistekin bilerarik izan ote duen jakiteko

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua eraistea eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialistekin bilerarik izan ote duen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Kontuan hartuta Nafarroako elkarte eta talde memorialistek “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua eraistea aho batez eskatu dutela:

Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua eraistea eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialistekin bilerarik izan al du legegintzaldi honetan? Bilerarik izan baldin badu, zer ondorio atera zen bilera horietatik?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00494. Galdera, Nafarroako Memoriaren Institutuaren arduradunak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua botatzea eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialistekin bilerarik izan ote duen jakiteko

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Nafarroako Memoriaren Institutuaren arduradunak “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua botatzea eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialistekin bilerarik izan ote duen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Kontuan hartuta Nafarroako elkarte eta talde memorialistek “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua eraistea aho batez eskatu dutela:

Nafarroako Memoriaren Institutuko arduradun politikoren batek “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua eraistea eskatzen zuten Nafarroako elkarte eta talde memorialistekin bilerarik izan al du legegintzaldi honetan? Bilerarik izan baldin badu, zer ondorio atera zen bilera horietatik?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00495. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko proposamena dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Kontuan hartuta Nafarroako elkarte eta talde memorialistek “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentua eraistea aho batez eskatu dutela eta eskari hori PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk adostu duten proposamenaren antagonikoa dela:

PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk beste esanahi bat emateko adostutako proposamen eztabaidagarrian Maravillas Lamberto izena erabiltzen da faxismoa salatzeko eta memoria demokratikoaren aldeko zentroa izanen litzatekeena izendatzeko. Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak zer balorazio egiten du basakeria frankistaren ikono baten izena horretarako erabiltzea dela-eta?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00496. Galdera, 1936ko kolpe militarraren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeari dagokionez Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, 1936ko kolpe militarraren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeari dagokionez Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

"Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emate aldera PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk egindako proposamena ikusita,

Nafarroako Memoriaren Institutuaren ustez, egokia eta bidezkoa al da 33/2013 Foru Legea aldatzea proposatzea (azaroaren 26koa, 1936ko kolpe militarraren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa), PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako akordioan jasotzen den moduan, zertarako eta Nafarroako elkarte eta talde memorialistek aho batez egindako eskariaren antipodetan dagoen proposamen bat garatzeko?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00497. Galdera, 1936ko kolpe militarraren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeari dagokionez Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, 1936ko kolpe militarraren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeari dagokionez Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

"Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emate aldera PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk egindako proposamena ikusita,

Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiaren ustez, egokia eta bidezkoa al da 33/2013 Foru Legea aldatzea proposatzea (azaroaren 26koa, 1936ko kolpe militarraren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa), PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako akordioan jasotzen den moduan, zertarako eta Nafarroako elkarte eta talde memorialistek aho batez egindako eskariaren antipodetan dagoen proposamen bat garatzeko?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00498. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioa dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioa dela-eta Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

"Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emate aldera PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk egindako proposamena ikusita,

PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako akordioan hitzez hitz jasotzen da nabarmendu egiten dutela "elkarte memorialistek egindako lan goraipagarria, isiltasuna apurtzeko, egia ezagutzeko eta senideak berreskuratzeko lanari ekin baitzioten, hori gabe ezinezkoa izango baitzen honaino iristea"; Nafarroako elkarte eta talde memorialistek aho batez egindako eskariaz bestelakoa eskaintzen dute, ordea. Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiak zer balorazio egiten du horri buruz?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00499. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioa dela-eta Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioa dela-eta Nafarroako Memoriaren Institutuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

"Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emate aldera PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk egindako proposamena ikusita,

PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako akordioan hitzez hitz jasotzen da nabarmendu egiten dutela "elkarte memorialistek egindako lan goraipagarria, isiltasuna apurtzeko, egia ezagutzeko eta senideak berreskuratzeko lanari ekin baitzioten, eta hori gabe ezinezkoa izango baitzen honaino iristea"; Nafarroako elkarte eta talde memorialistek aho batez egindako eskariaz bestelakoa eskaintzen dute, ordea. Nafarroako Memoriaren Institutuak zer balorazio egiten du horri buruz?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00500. Galdera, etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa egiteko eta kudeatzeko lankidetza-hitzarmenak eta lantaldeak eratzea egokia ote den ikuste aldera Nafarroako Memoriaren Institutuarekin aurretiaz harremanik izan ote den jakiteko

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa egiteko eta kudeatzeko lankidetza-hitzarmenak eta lantaldeak eratzea egokia ote den ikuste aldera Nafarroako Memoriaren Institutuarekin aurretiaz harremanik izan ote den jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

“Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioan honako hau jasotzen da: "Akordio honetan adostutako eraikinaren eraldaketa gauzatzea eta etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa kudeatzea Iruñeko Udalaren ardura izango da; hala ere, Nafarroako Gobernuaren memoria-politika publikoak direla-eta, zeinek laster Iruñeko Marques de Rozalejo jauregian izango duten egoitza, bi erakundeen arteko lantalde bat eta lankidetza-hitzarmenak sustatuko dira, proiektu hori bultzatzeko".

Nafarroako Memoriaren Institutuarekin inolako harremanik izan al da aldez aurretik, PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako akordioan "bi erakundeen arteko lantalde bat eta lankidetza-hitzarmenak" sartzearen egokitasuna aztertzeko?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00501. Galdera, etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa egiteko eta kudeatzeko lankidetza-hitzarmenak eta lantaldeak eratzea egokia ote den ikuste aldera Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiarekin aurretiaz harremanik izan ote den jakiteko

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa egiteko eta kudeatzeko lankidetza-hitzarmenak eta lantaldeak eratzea egokia ote den ikuste aldera Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiarekin aurretiaz harremanik izan ote den jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

“Nafarroak gurutzadako bere hildakoei" monumentuari beste esanahi bat emateko PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatu duten akordioan honako hau jasotzen da: "Akordio honetan adostutako eraikinaren eraldaketa gauzatzea eta etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa kudeatzea Iruñeko Udalaren ardura izango da; hala ere, Nafarroako Gobernuaren memoria-politika publikoak direla-eta, zeinek laster Iruñeko Marques de Rozalejo jauregian izango duten egoitza, bi erakundeen arteko lantalde bat eta lankidetza-hitzarmenak sustatuko dira, proiektu hori bultzatzeko".

Memoria eta Bizikidetzako zuzendari nagusiarekin inolako harremanik izan al da aldez aurretik, PSN-PSOEk, Geroa Baik eta EH Bilduk sinatutako akordioan "bi erakundeen arteko lantalde bat eta lankidetza-hitzarmenak" sartzearen egokitasuna aztertzeko?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00502. Galdera, arnasgailuak erosteko lizitazioaren zehaztapenei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, arnasgailuak erosteko lizitazioaren zehaztapenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

PES-00433 galderari emandako erantzunari dagokionez, baldin eta Lizarrako eta Tuterako osasun-barrutietarako beharrezkoak diren prestazioak badira erositako garraio-arnasgailuek ASV bentilazio-modu esklusiboa izatea, 200 gramotik gorako paziente jaioberriak bentilatu ahal izatea eta arnas-presioan, gehieneko arnas-fluxuan, bentilazio-maiztasunean nahiz arnasa hartzeko maiztasunean goragoko baloreak izatea,

nola liteke prestazio horiek lizitazioaren zehaztapenetan sartu ez izana?

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/PTCI-00012. Mahaiaren erabakia, Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluari eta Valentziako Erkidegoko Nafarroako Etxeari Nafarroako Parlamentuaren Domina emateko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroa komunitate solidarioa eta parte-hartzailea da, eta horren erakusgarri da bertako elkarteen ehundura zabala, haiek gizarte justuago eta berdinzaleagoa sortzeko lan egiten baitute, erakundeekin batera.

Urteko aste ia guztietan egiten dira herritarren parte-hartze borondatezkoa eta eskuzabala izaten duten ekitaldiak. Gizarte aktiboa dugu, solidaritate-konpromiso handikoa, eta behar denean laguntzeko prest egoten dena.

Boluntariotza-fenomenoa haziz eta eraldatuz doa etengabe. Egoera dramatikoetan, hala nola Errusiak Ukraina inbaditu zuenean, edo berrikiago, GOIDI - Goi-geruzetako depresio isolatuak Valentziako Erkidegoan izandako ondorioen aurrean, ezin konta ahala pertsona, elkarte, enpresa eta erakunde mobilizatu dira, eta ahalegin guztiak egin dituzte kaltetutako herritarrei laguntzeko.

Pertsona horiek, gehien-gehienetan, sare sozialen bidez mobilizatzen dira, larriminezko egoeretan laguntza behar duenari esku-kolpe bat emateko. Eta elkarteak, erakundeak eta enpresak, antolaketa-ahalmenez, ahaleginak koordinatzen saiatzen dira, laguntza modu efikaz eta efizientean irits dadin.

Tanta hotzarekin bizitzen ari garen tragediaren gisako egoera batean ikusten ditugu alderdi positiboak ere: muturreko egoeretan, herritarrak gai direla mobilizatzeko, antolatzeko eta laguntzeko , baita erakundeak baino lehenago ere batzuetan.

Eta modu sistematizatuan eta iraunkorrean, solidaritate-bulkada eta -mugimendu hori boluntariotza-sare sendo batean gorpuzten da; bada, Nafarroaren ere halakoxea dago, tamalez gure eguneroko bizitzan sortu ohi diren edonolako tragediei eta hondamendiei aurre egiteko prest.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren Domina ematea Nafarroako Foru Komunitateko Boluntariotzari. Domina Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluari eta Valentziako Erkidegoko Nafarroako Etxeari emanen zaie, Nafarroako Foru Komunitateko Boluntariotzan diharduten pertsona, entitate, kolektibo eta erakunde guztiei errekonozimendua eta esker ona adierazte aldera. Ekitaldia Osoko Bilkuren aretoan eginen da 2024ko azaroaren 27an (asteazkena), 11:00etan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/ACCOP-00003. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena:

1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa erakusten du, genero-desberdinkeriak amaitu eta emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea lortzeko asmoz.

3. Nafarroako Parlamentuak ezagutza, ikerketa eta pentsaera feminista erreibindikatzen ditu, aldaketa eta berriketa sozialaren motor eta emakumeen eta gizonen eskubide eta askatasunen bultzatzaile baitira.

4. Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen du emakumeen aurkako indarkeriaren mota oro, eta bere konpromisoa adierazten du emakumeen biziari, askatasunari eta duintasunari eraso dieten indarkeria mota guztiak desagerrarazte aldera.

5. Nafarroako Parlamentuak herritarrei dei egiten die parte har dezaten egun horretarako deitzen diren mobilizazio instituzional eta herritarretan eta erreibindika dezaten emakumeekiko indarkeriaren aurkako borroka.

6. Nafarroako Parlamentuak espresuki gogorarazi nahi ditu gaur emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izan diren eta bertatik bizirik iraun duten guztiak.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak 2024ko azaroaren 22an idazki bat aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, non eskatzen baitu 2024ko abenduaren 4an eta 5ean eta abenduaren 23tik 2025eko urtarrilaren 7ra bitarte goizeko lanaldia ezartzea, betiere Parlamentuko lan-beharrizanek horretarako bidea ematen badute.

Kontuan izanik egun horietan, 2025eko urtarrilaren 7an izan ezik, ez dagoela aurreikusita arratsaldez jarduera parlamentariorik, eta kontuan izanik 2024ko abenduaren lehen astean behar diren langileek ohiko lanaldiaren barruan bete beharko dituztela Nafarroaren Egunaren ospakizuna delaeta Nafarroako Parlamentuan aurreikusitako jarduerak, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Mahaiaren 2024ko azaroaren 11ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea; halatan, 2024ko abenduaren 4an eta 5ean eta 2024ko abenduaren 23tik 2025eko urtarrilaren 6ra bitarte, biak barne, lanaldia goizekoa izanen da, betiere zerbitzuen beharrizanek horretarako bidea ematen badute (11-24/GPER-00022).

2. Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren arreta presentzialeko ordutegia, Mahaiaren 2024ko azaroaren 11ko erabakiaren bidez onetsia; halatan, 2024ko abenduaren 4an eta 5ean eta 2024ko abenduaren 23tik 2025eko urtarrilaren 6ra bitarte, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik, betiere zerbitzuen beharrizanek horretarako bidea ematen badute.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/QSR-00002. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak –horietako bi, euskarako B2 hizkuntza-eskakizunarekin–, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko oposizioaldiko probaren aurkakoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak –horietako bi, euskarako B2 hizkuntza-eskakizunarekin–, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko oposizioaldiko probaren aurkakoa.

CSIF sindikatuaren izenean, Javier Tarazona Lizarralde jaunak alegazioak aurkeztu ditu Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko zortzi gelazain-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta D mailakoak –horietako bi, euskarako B2 hizkuntza-eskakizunarekin–, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko oposizioaldiko probako behin-behineko emaitzen aurka, eta gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu du 2024ko azaroaren 9an egin zen oposizioaldiko probaren horren aurka.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 118. eta 45. artikuluetan ezarritakoaren arabera, interesdun guztiei jakinarazten zaie alegazioak aurkeztu ahal izanen dituztela iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita gehienez ere hamar egun balioduneko epean. Alegazioak Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eskabidearen bidez aurkeztu behar dira (https://parlamentodenavarra.es); hain zuzen ere, Administrazio-izapideak / Langileria-deialdietako eskabidea atalean.

Gora jotzeko errekurtso horren kopia lortzeko, interesdunek modu telematikoan eska dezakete errekurtsoa bidal dakien. Eskaria Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eskabidearen bidez egin behar da (https://parlamentodenavarra.es); hain zuzen ere, Administrazio-izapideak / Langileria-deialdietako eskabidea atalean.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias